AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3091

717/2012 EBAZPENA, ekainaren 6koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, lekualdaketa-lehiaketako kalifikazio-epaimahaia izendatzeko, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan duten Fakultatibo Mediko eta Teknikarien lanbide-taldeko Mediku kategorian (Fakultatibo Espezialista Familia-medikua-LMT eta Fakultatibo Espezialista Pediatriako Medikua-LMT lanpostu funtzionalak).

Osakidetza – Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 26ko 413/2012 Ebazpenaren bidez, lekualdaketa-lehiaketa deitu zen, destinoa zehaztutako zerbitzu-erakundeetan duten Fakultatibo Mediko eta Teknikarien lanbide-taldeko Mediku kategorian (Fakultatibo Espezialista Familia-medikua-LMT eta Fakultatibo Espezialista Pediatriako Medikua-LMT lanpostu funtzionalak) (2012ko apirilaren 18ko EHAA, 76. zenbakia).

Osakidetzako Zuzendari Nagusiak lekualdatze-lehiaketa kalifikatuko duen epaimahaia izendatuko du, ebazpen horren 7 oinarrian ezarritakoarekin bat etorriz.

Adierazitakoagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliatuz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendari Nagusiak martxoaren 26ko 413/2012 Ebazpenaz deitutako Medikuen kategoriako (Fakultatibo Espezialista Familia-medikua-LMT eta Fakultatibo Espezialista Pediatriako Medikua-LMT lanpostu funtzionalak) lekualdaketa-lehiaketako kalifikazio-epaimahaia izendatzea. Epaimahaikideak Ebazpen honen I. eranskinean agertzen dira.

Bigarrena.– Ebazpen honek eman den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.– Deialdiko 11. oinarrian ezarritakoaren babesean, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Osakidetza - Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea emango da, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko ekainaren 6a.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIAN PÉREZ GIL.

I. ERANSKINA

EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA

FAK. ESP. FAMILIA MEDIKUA - LMT

Epaimahaiburua

– Titularra: Fraile Esteban, Jose Ignacio.

– Ordezkoa: Bustinduy Bascarán, Ana Jesus.

Lehen epaimahaikidea

– Titularra: Fernandez de Mendiola Espino, Jesus.

– Ordezkoa: Gutierrez Jodra, Maximiano.

Bigarren epaimahaikidea

– Titularra: Herranz Gonzalez, Javier.

– Ordezkoa: Gorostiza Hormaeche, Francisco Javier.

Hirugarren epaimahaikidea:

– Titularra: Valencia Rama, Juan Carlos.

– Ordezkoa: Mourelo Carballo, Carlos.

Laugarren epaimahaikidea:

– Titularra: Callen Blecua, Maria Teresa.

– Ordezkoa: Calleja Vilar, Teresa.

Bosgarren epaimahaikidea

– Titularra: Blazquez Davila, Juan Carlos.

– Ordezkoa: Mediavilla Tris, Gregorio Antonio.

Idazkaria

– Titularra: Aldama Lopez de Viñaspre, Eva.

– Ordezkoa: Garcia Sobrón, Maria Belén.